



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Larunbata
2010-09-18**

VIII. URTEA 2077. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Tolosako Gerontologiko berria datorren astean jarriko dute martxan

POLITIKA Gipuzkoako Foru Aldundiko Ahalduen Nagusiak, Markel Olanok, egin du iragarpena

AZPIEGITURAK Izaskungo lotura berrira joango den zubia egiteko asmoa azaldu du Diputazioak, 2012. urtean 3



Gorostartzu baserriko Maria Jesus Mujika bere ortuan barazkien artean. I. GARCIA



Irabiazpi baserriko Edurne Jauregi bere baratzean. I. GARCIA

«SALTZAILE ETA EROSLE GAZTEAK BEHAR DIRA AZOKAK IRAUN DEZAN»

BALIARRAIN Maria Jesus Mujikak eta Edurne Jauregik aipamen bereziak jaso berri dituzte Ordiziako azokan beraien barazkiengatik 4-5

Multifitness eta bosu-gap ikastaroak doan probatzeko aukera

IBARRA Ate irekien jardunaldia egingo dute urriaren 4tik 15era; BPXport Kirol Zerbitzuak kudeatzen du orain Belabieta kiroldegia 7

ZARAUZ

SURFGARAGE

(Marina-Txiki taberna azpian)

Taulak, neoprenoak eta abar gordetzeko lekua urtean zehar

DUTXAK-TAKILAK-KABINAK

EURO 1 EGUNEKO...

info: surfgarag@gmail.com

tel.: 600 880 238

MARIA TRUKU LA Aitzol Udal Euskaltegia

MAIOLAKO BARRIOA, 10
40100 TOLOSA
TEL: 943451004 - 943452343
WWW.VOLOLAKOEGUNAKA.NET
ALTSOLUE@TOLOSAKOUDALA.NET

Rondilla 34-B, 3.a
20400 TOLOSA
tel. 943451004 - 943452343
www.volosakalegiak.net
altsolue@tolosakoudala.net

Hamaikabatek laster egoitza zabalduko du

TOLOSA » Hamaikabatek Gipuzkoako Lurralde Batzarra egin zuen herenegun Tolosako Kultur Etxean. Alderdiaren Tolosaldeko koordinatzaile den Andoni Iturzaetak Hamaikabat eskualdean «finkatzen» ari dela esan zuen, eta 2011ko maiatzeko hauteskondeei begira, «kabertzaletasun historiko eta instituzionala sendotzeko helburuarekin», alderdiaren zerrenden osaketa lanei hasiera eman dietela. Bestalde, Hamaikabatek laster zabalduko duela Tolosan egoitza berria azaldu zuen. **IT**



Egungo garraio-ereduari mugak jarri asmoz hainbat ekitaldi antolatu dituzte

Mugikortasuna » Hiriko autobusa erabiltzea bultzatuko dute, besteak beste; bihar bizikleta martxa egingo dute.

ERREDAKZIOA

Mugikortasun Astearekin bat eginez, aurten ere, Tolosako Ingurumen Zentroak hainbat ekitaldi antolatu ditu datozen egunetarako. *Adimenez mugi zaitez eta hobeto bizi!* lelopean, «mugikortasunari kasu egitea» da helburua, «egungo garraio-eredu jasanezinari mugak jarri». Horretarako herritarren sentsibilizazioa bultzatuko dute, beste behin.

Autoa aparkatzeko gonbita

Datorren asteartean hasiko dira ekitaldiekin. Egun horretan, Usabalgo industrialdera joko dute, eta bertako langileak hiriko autobusa hartzeragorbidatuko dituzte, euskarri informatzaileak banatuz, autobusaren ordutegiarekin. Hala, bertako langileei autobusa ez erabiltzearen arrazoiengatik inguruan galdetuko diete.

Bestalde, batxilergoko ikasleen laguntzarekin herriko aparkaleku



Autorik gabeko eguna, pasa den urtean, Anoetan. HITZA

nagusietan autoa erabiltzen duten guztiak gonbidatuko dituzte autobusa erabiltzera, autobusari buruzko informazioa banatuz.

Egun horretan bertan, Udalak, herritarrei zuzendutako aholkuen bilduma bidaliko die oinez eta bizikletaz ibiltzearen onurak goraiatuz. Postaz bidali ordez, paper kontsumoa gutxitu nahian, era digitalean zabalduko dute, Internet bidez, ingurumen sailetik.

Datorren asteazkena, hilaren 22a izango da autorik gabeko eguna, eta hemen aurreko egunean hasitakoarekin jarraitzea da as-

moa. Beraz, jendeari autorik gabeko eguna dela gogorarazteaz gain, aurreko egunean egindako kanpainaren ikuskapena egingo dute, informazioa banatuz.

Stop CO2 mahaiaren bilera

Autorik gabeko eguna baliatuz, Stop CO2 mahaiaren lehendabiziko bilera egingo dute. Tolosako Udalak pasa den urteko osoko bilkuran adostu zuen herriean CO2 eta gainontzeko berotegi-efektu gasen isurketak murrizteko mahai bat antolatzea. Mahaia Tokiko Agenda 21 ekintza plana garatuko

dute, eta gai sektorialak jorratzean herritarren parte hartzea sustatu nahi dute. Hilaren 22an, 19:30an, izango da, udaltxean.

Lagunbusa

Tolosako Ingurumen Zentroak Lagunbusa ere nabarmentzen du ekimenean artean. Pasa den ikasturtean 50 ikaslek eta 20 gurasok hartu zuten parte proiektuan, eta aurten ere jarraitzeko «ilusio handiz» daude. Eskolara oinez joatea du helburu nagusi proiektu honek eta partaidetza indartzeko eskolara oinez doazen ikasleen geldialdiak ezagutzera eman nahi dituzte.

Bizikleta martxa, bihar

Eskualdeko herri ugari hartuko dute parte Mugikortasun Astearen. Hala, bihar, bizikleta martxa egingo dute hainbat herritatik igaroz. Bi zirkuitu izango dira: Lehena Ikaztegiatik aterako da, eta Alegia eta Tolosa zeharkatu eta Anoetara iritsiko dira; bigarrena Asteaustirikirtengo da Zizurkil, Villabona eta Irura zeharkatuz Anoetara iritsiko. 10:30ean aterako dira bi zirkuituak, eta Anoetara 12:00ak aldera iritsiko dira, bertan hamaikabateko egingo dutelarik.

Didgeridoo ikastaroa antolatu du Asvineneak hilaren 25erako

Aduna » Iban Nikolai irakasleak emango du, 10:00etatik 14:00etara, eta 40 euro kostako da.

ERREDAKZIOA

Asvinenea Eskolak antolatuta, datorren larunbatean, hilaren 25ean, didgeridoo ikastaroa eskainiko dute. Iban Nikolai musika irakasleak emango du, 10:00etatik 14:00etara, eta 40 euro kostako da.

Didgeridooa airezko musika instrumentua da, Australiako aborigenek erabiltzen zutena. Egurrezko hodi modukoa da, eta ezpainek barnealdean dardar egitean egiten du soinua. Duela 2.000 urte inguru sortua izan zela uste da, aurkitu diren margoengatik, baina aborigenek 40.000 urte baino gehiago dituela diote.

Izena emateko edo inormazio gehiagorako 647 20 14 01 (Bea) zenbakira deitu beharko da. Bestalde, Asvineneatik azaldu dute, haur, gazte eta nerabeentzat antzerki eta afrikar dantzen ikastaroa ari dira prestatzen, eta laster emango diete hasiera.



Didgeridoo musika tresnak. HITZA

'Vaya Semanita' antzezlanaren estreinaldia izango da hilaren 24ean, Leidorren

Antzerkia » Izen bereko telebista saioan oinarrituta dago; sarrerak salgai jarri dituzte 20 euroren truke.

ERREDAKZIOA

Datorren ostiralean, hilaren 24ean, *Vaya Semanita* antzezlanaren estreinaldia izango da Tolosako Leidor aretoan. 20:00etan izango da ETB2ko izen bereko saioan oinarrituta dagoen emanaldia.

Bada, bertara joateko sarrerak salgai jarri dituzte dagoeneko. Hauek ohiko bideen bidez eskuratu ahaliko dira 20 euroren truke: Leidorreko leihatilan (zine ordu-tegiatan) eta Kutxako kaneletan (Servikutxa, Telekutxa eta www.kutxa.net).

Iriarte
jateak

Oporren ondoren GAUR irekitzen dugu

Astebukaerako menua 33€

- Antxoia ensalada
- Arroz saldatua langostino eta almajekin
- Langostino eta txipiroi brotxeta edo Ugameko txerrikumea
- Postrea: Yogir zopa mazedoniarekin

Tel.: 943 683 078 • BERROBI

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Markel Olano, Ahdun Nagusia, eta Eneko Goia, Azpiegitura diputatua, herenegun Tolosako Topic-en. A. IMAZ

Olano: «Hurrengo astean jarriko da martxan Tolosako gerontologiko berria»

Politika » Gipuzkoako Foru Aldundia, zure herrian' ekimenak eskualdeko hainbat udal ordezkari elkartu ditu.

ASIER IMAZ

Herritarrengana gerturatu nahi izan zuen herenegun Markel Olanok, Gipuzkoako Ahdun Nagusiak. Topic-eko eskenatokia Eneko Goia, Azpiegitura foru diputatua, ondoan zuela irten zen. Eserlekuetan, ehun lagun inguru aurkitzen ziren, entzuteko eta galdetzeko prest.

Ahdun Nagusiak inkestean daukeen hasi zuten agerraldia. Hauen arabera, Gipuzkoako herritarren %79,5ak erakundeen politiketan ez omen du sinesten. Datu «kezagarri» honi erantzuna emateko asmoz, Markel Olanoren lantaldeak *Gipuzkoako Foru Aldundia, zure herrian* ekimena jarri zuten martxan.

Herritarrengana gerturatzeko helburua duen egitasmoa, 13 herritatik igaro da. Berastegi horien artean aurkitzen da eta herenegun Tolosa izan zen zerrendan sartu zen azkena. Topic-en eskualdeko udal ordezkari ugari elkartu ziren, besteak beste, Tolosa, Leaburu-Txarama, Asteasu, Ibarra eta Iru-rako korporazio kideak joan ziren Markel Olanok eta Eneko Goiaren agerraldira.

Eskualdearekin lotuta

Topic-eko ekitaldiaren aurkezle eta entzuleen arteko komunikazioan, eskualdeari buruzko hainbat gai aipatu ziren.

Tolosari dagokionez, Ahdun Nagusiak Usabal kiroldegian eginitako inbertsioa eta Foru Aldundiak proiektuari eskaini dion babesa azpimarratu zituen. Gerontologiko berriaren inguruan ere hitz egin zuen, «hurrengo astean martxan» jarriko dela iragartzeko. Arlo honetan eskualdea oso ongi aurkitzen dela onartu zuten Olanok, itxaron zerrendarik ez gotea

«Krisiaren aurkako planaren baitan, eskualdeko 12 enpresa lagundu ditu Diputazioak»

«Gipuzkoako herritarren %79,5ak ez du konfiantzarik erakundeen politiketan»

horren adibide garbi dela esanaz. Horretaz gain, Ahdun Nagusiaren esanetan, «gure gizartea gero eta zaharragoa da. Garrantzitsua da gure nagusien autonomia mantentzen saiatzea ahalik eta gehien. Diputazioak beharrezko bitartekoak jarriko ditu horretarako».

Azkenik, Anoetatik eta Hernialdetik Tolosara doan errepidea, Ibarra-ko Izaskun auzora doan sar-

bide berriarekin lotuko duen zuziaz hitz egin zuen. Larramendiko gasolindegian inguruan joango litzateke zubi berri hau. Eraikitze lanak 2012. urtean hastea gustatuko litzateke foru diputatuei, baina aurrez eman beharreko hainbat urrats aurkitzen direla ere onartu zuten. Tolosaldeari dagokionez, bertara bideratu dituzten inbertsioak aipatu zituen Markel Olanok Ahdun Nagusiak. Zehatz-mehatz, eskualdeko enpresen inguruan hitz egin zuen. Olanoren esanetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskualdeko 12 enpresei 1,5 milioi euroko laguntzak eman dizkie, krisiaren aurkako politiken barnean.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Haurrak zaintzeko.** Neska bat, ikasturtean zehar haurrak zaintzeko eskaintzen da. Esperientziaduna da. Interesatuta egonez gero, deitu 685 70 61 03 telefono zenbakira.

SALGAI

■ **Autoa.** Volkswagen Tovareg V6. Hiru urte bakarrik ditu. 100.000 kilometro ditu eta oso egoera onetan aurkitzen da. Interesatuek 629 40 32 20 telefono zenbakira deitu beharko dute.



Gipuzkoako Txapelketako partidak jokatu ziren atzo Beotibarren. A. IMAZ

Gipuzkoako Txapelketa eta Bidaniako plana

Pilota » Bidanian txapelketa berezia jokatu dute gaur Bidegoian, Añorga eta Markinak.

A. IMAZ

Ikasturte berriarekin batera hasi da Gipuzkoako Pilota Txapelketa. Aurrera-Saiazeko pilotariak atzo partidak jokatu zituzten, bai Beotibarren eta baita Tolosatik urrun ere.

Txapelketaren lehen asteburuko azken partidak gaur jokatu dituzte. 10:00etan Beotibarren ka-deteen partidak ikusteko aukera egongo da. Gainontzeko lehiak Ibaetan eta Lasarten dituzte.

Bidanian pilotarekin jolasean

Bestalde, Aurrera-Saiazetik jakinarazi dutenez, gaur egun pasa berezia egingo dute Bidanian. Pilota elkarteko haur eta gurasoak bertan elkartuko dira, elkar ezagutzeko eta egun eder bat igarotzeko asmoz.

Arratsaldean iristen denean, 16:00etan, pilota jarriko dute poteka bertako frontoian, Markina, Añorga eta Bidegoianen artean txapelketa moduko bat ospatzeko. Lehiak baino jolasak izango du lehentasuna eta denen artean ongi pasatzea izango da helburua.

Eskualdetik kanpo dauden herri hauetatik ere haurrak eta gurasoak etorriko dira Bidaniara. Partiden ondoren merienda bat egongo dela ere azaldu dute.

» GIPUZKOAKO TXAPELKETA 2010-2011

Gaur, hilak 18

Beotibar pilotalekua, 10:00etan.

Kadeteak, 1. maila

Aurrera-Saiaz

Zazpi Iturri

Kadeteak, 2. maila

Aurrera-Saiaz

Alde Zaharra 2

Ibaeta, 10:30ean.

Seniorrak, banaka

Antigua

Aurrera-Saiaz

Lasarte, 16:15ean.

Seniorrak,

Intza

Aurrera-Saiaz 2

■ **Txakurrak.** Bi artzai-txakur salten ditut. Interesatuek, deitu 648 65 23 27 telefono zenbakira.

ALOKAIRUA

■ **Baserría edo borda.** Baserri edo bordaren bat alokatuko genuke. Interesatuek deitu: 634 45 91 10ra.

GALDUTAKOAK

■ **Erlojua.** Emakumezkoen erlojua topatu dute Ibarren. Galdu duenak deitu 943 67 45 72 telefono zenbakira.

Astero-astero joaten dira Ordiziako azokara Balarraingo Maria Jesus Mujika eta Edurne Jauregi beraien barazkiak saltzera. Egin berri den urteko azokara berezian sarituak izan dira eta aipamen berezia eman zaie urtean zehar azokara eramaten dituzten produktuentzat. Biek bat egiten dute azokak irauteko saltzaila eta erosle gazteak behar direla esaterakoan. **MANOL GARCIA**

«Bere garaian biltzea da kalitatezko barazkiak izateko sekretua»

MARIA JESUS MUJIKA | Baserritarra

40 urte inguru dararamatza Goroartu baserriko Maria Jesus Mujika (Amezketza, 1944) Ordiziako azokara josten. Hainbat sari eskuratu ditu, tartean lehengo saria azokara bereziko lehiaketara aurkeztu izan den bost aldiz. **Ordiziara joaten hasi zinetetik azokaratu zen azoka.** Basi, aldu da. Hala ere badut bixkeria bat. Orlan emakumezkoen mantalarekin josten ziren, ez baitzegoen gaur egun bezala dirua sartzeko kaxarik. Orlan ez zegoen bain-beste diru zehar. Pezoak billetetan ziren eta durak ere bai. Ni oraindik mantalarekin josten naiz eta uste dut bakarra naitzela. Kaxabada bat bainan diru-zorroa eta nire zapi politikoetan sartzen ditut. **Beste guzua azokaratu ziren ere.**

Asko aldatu da. Gari hartan nandak egitera azaltzen zirenak etortzen ziren etagero Inuenaredo josten ziren. Gaur egun ez dago horrelakorik. **Eta azken urteotan azoka jaitzen ari al dago?** Bai, bai. Edadeko jendea josten da azokara. Azokara josten garenak ere geroz eta gutxiago gara eta berriak ez da hasten. Nik uste dut pikkanaka-pikkanaka behar joango dela, bai erosleen aldetik eta baita saltzaileen aldetik ere. **Ez dago, beraz, atzetik jarraituko duenik?** Nik etxean ez daukat. Bakozkat bere marta dauka eta jarri dezala. Baina batuen batek egin beharko du baraztean, jan egin behar baita. Fabrikak ez ditu letxugak torlojak bezala egiten. **Azokara doanak badaki zein erosten diren eta zer erosten duen.**

egiten dut. Hemen garai bat izan da letxuga gorri horiek eta hartze horietako ditzen zatia ez zegoena. Brokolia ere izango zen non-bait, baina hemen ez zegoen. Eta horiek, rola aldatzen diren bitartean joan gara. Lehengo azenariok eta porriak, letxuga, azelga, leka... zauden. **Nola eramanen da astero plazan egotea?** Gu neguko hotzak eta udako beroak barazte ditugu. Ordiziako plaza irekia da. Estalita dago eta korriten

«Edadeko jendea josten da azokara. Nik uste dut pikkanaka behar joango dela»

«Ez baduzu leka bere garaian biltzen, zakartu egiten da. Beroaren kiari bi egumetan pasatzen dira»

tes du. Hantxe ohiu gara eta hantxe egoten gara astero. Hara ez bagara josten zer baita gizen dugu. **Beroa jaitzen batzuk izango dituzu, beti zuri erosten dituztenak.**

«Gu saltzera joaten gara eta gaintetik saria ematen badizute, eskertzekoa da»

EDURNE JAUREGI | Baserritarra



Astero josten direnen artean, hainbat sari edo aipamen berezi jarraituko da irabizpi baserriko Edurne Jauregi (Balarraingo, 1952) Ordiziako azokan. Azokara bereziko espesifiketien den lehiaketara ez da behin ere aurkeztu. Geroztik berria josten eman dituen 28 urteetan. Familiatik datorliko azokara joateko ohitura. Aurretik alizira eta amarekin ere josten zen. «Ama zortzi urte zituela hasi zen josten», azaltzen da. «Aitonarekin josten zen, astorekin eta oinez».

Zer eramanen duzu azokara? Denetik: porriak eta azelgak, brokolia, pipin klase gehienak, zapiti tomata baretate, apioak, pepinok... **Ordiziako azokak fama du. Bertara jendea josten dena oinarria.** Berezok ditugu astero-astero josten direnak, aspalditik. Hori bai, jende guzua joaten zaigu. **Baserriar askok duzue postua bertan?** Dezentetik badaude, baina gero eta gutxiago. Postuak husten ari dira. Ez dago jarraitpenik. Etxe bertatik hasita. Etxekoak kanpoan dauka lana. Etorri zuzen batek dakiz zer gertatu daitekeen. **Gazterik ez izatea, baserriki bizitzea lotua delako izan daiteke?** Balarraingo arizeta ez da animala-ekin arizeta bezala lotin. Baraztea urti dezakezu egun bat eta bi, apurro hitan. Baina besteak jarraitzen behar da, lana egin behar dugu. Uza izateko aurretik jarri egin behar duzu. **Azokara behar da, beraz.**

Astero josten garenak normalean baditugu gure bezeroak. Egun batean bat gehiago edo bat gutxiago izango duzu. Gero, egun batean zuk ez duzuna besteak izango du eta alderantziz. Plaza, plaza da. Batek gurea izango du, besteak horietako. Batek produktuski kalitate hobekoak izango ditu eta besteak leka zakaragoak dituzelako merkeago saldu behar duzue. Hori gurea izateko erakusten du. **Eta kalitatea lortzeko zein da sekretua?** Bere garaian biltzea. Zuk ez baduzu leka bere garaian biltzen, zakartu egiten da. Lurra prestatu eta landatu egin behar da. Gero bero baldin bada, leka bi egumetan pasatu egiten dira. Biltzeko aukera ez da bertizaten, baina mendeak behar du behar duzu. Hurrengo egunetan esaten duzu bilduko duzula, baina leka baraztean geratzen da eta egun hori ere nabaritzen da. Ez da diruarekin bakarrik erosten, bizirik ere bai. **Genero onak eramanen aldieko zerealerak dituzte.** Eskarolak oso txukun izatea gastezaten zait, adibidez, ez dakit manita den edo horrelako naitzen. Ezean esaten dituzte eta hostoak kontatu al dizkieten eta horrelako gaurak. Zer baita nahi duenari zer bait kontatzen zaio. Horrela dio eskarak.



Nola arri Ordiziako azokan? Horiek ez du egunik, ahal dudatan arte jarraituko dut.

Asko jaitzi da. Oraindik eusten dugu eta mantentzen dugu, baina gaur jende faltar da. Orain badituzte beste proxiak batzuk, azokara joaterik ez dutenei berura eramateko. Ez dakit zer bait jende egongo den horietarako prestatu behar duzun. **Barazkiak kalitatezkoak izatea eta barietate zaindu behar da.** Batzuk porriak eta azenariok trankil nahi dituzte eta beste batzuk, berriak, handiak nahi dituzte. Letxugak bururik gabekoak nahi dituztenak, edo garbitu gabekoak nahi dituztenak, hobeto kontserbatzen direla esaten dute. Berriak kontserbatzen dituzte eta horietatik. Berriak kontserbatzen dituzte eta horietatik. **Baratzte kontuak gurasoengandik ikasko zentuzten, ezta?** Bai. Lehen baratzte gutxiago egiten zen. Soroa eta gehiago egiten zen. Babarrun eta garri gehiago egiten zen. Nik beti ikusi dut hori etxean. Pentusa ere animalotzat etxean egiten zen. Era ere etxean egiten genuen. Txiki-txikitatik ezagutu dit hori. **Gara ere egiten zenuen?** Bai, asko. Garia, artoa... Ganadaren baratzteko zerekeria zentuztenak. Dena etxean egiten zen, olibela, azpia egiteko, esaterako. Dena etxean izaten zen. Jende gehiago ere izaten zen lana egiteko. **Baratzteak badu sekreturik?** Sekreturik? Bat ere ez. Egumetik du sekretua. Haren arabera bitli behar izaten dugu, eta negutegirik ez daukagunik gehiago, gainera. Aurtur lehor xamarra izan delako

ez dago puntua-puntuan. **Lehorra izaten ari da, beraz, uda?** Nahiko lehorra. Letxugak eguzkia eta curia behar izaten du. Guzua batzuk hobeto atara eta handiago izango lirateke euri gehiago egiten izan behar. **Lurra ere landu egin behar da emaltzak jasotzeko.** Ximaurar ekin-eta aritzen gara, ahal dela hor mantentzen dugu betikoa. **Postua ere txukun jaritzea garrantzua izango da.** Astero sistean gara ahal den ondoan jarren, ahal den bitartean gehien jartzen. **Tolosara azokara ez zara josten?** Lehen josten nintzen larunbetean Tolosara. Ostiral arratsaldetan ere joan izan naiz Ordiziara bi urteetan. Baina govtan handia da eta ezin dugula denarekin jarraitu. Asteazkenetako mantentzen dut eta gaur jarraitzen. **Balarraingetik Ordiziara joateko Tolosara joateko baino ohitura handiagoa al dago?** Lehen lehenetik horra joateko joera handia dago leku izango da. **Agian gertuago egongo da?** Ez, berdin dauka, leka Balarraingetik 10 kilometroa dauka. Ez da gertuago edo urrutiago dagoela. **Horrelako aipamenak jasotzea motibazio izango du jarraitzeko.** Gu saltzera josten gara eta gaintetik hori ematen badute, eskertzekoa da. Astero josten denarentzako aurtur josten egiten duzun lana bertutezko poztekoa da. Baina batzuk saltzera josten gara eta beti-kobereoi atenditza.

Irudikatu mundua BERRIarekin

Gozatu berria

Egin harpidedun eta jaso ARGAZKI KAMERA HAU OPARI.

Orain, beste arazoak bat BERRIarekin harpidedun izateko.

Utzeren 15ean, telebista hau zotz egingo duzu BERRIarekin harpidedun artean. Eskuratu eskirik, **elektra** www.berria.com

Harriaren zenbakia: 943-30 43 45 • harpidetza@berria.com

Jaietan murgildu dira jada Kalebeherako bizilagunak

Alegia » Gaur 12:00etan krosa izango da eta bihar egingo dute herri bazkaria txakolin dastatzearen ondotik.

ERREDAKZIOA

Atzo bota zuten Alegiako Kalebeherako jaien hasiera iragartzeko txupinazoa, eta gaur eta biharko

egitarau txukuna prestatu dute. Ostegunguean, hala ere, *Celda 211* ikusteko aukera izan zen Gazte-txean. Gaurko ekitaldi nagusia, hala ere, gaueko bertso-saio musikatu izango da.

Urte asko eman dituzte Kalebeherako bizilagunek jai hauek ospatzen eta aurten, beste urteetan bezala, egun guztian zeharreko jai izango da kale horretan asteburu osoan zehar.

» EGITARAUA

Gaur

- **12:00.** Krosa.
- **16:00.** Pala txapelketa.
- **16:30.** Urme jolasak.
- **Iluntzean** zahagiardoa.
- **22:00.** Bertso-saio musikatu Beñat Gaztelumendi, Ainhoa Agirreazaldegia, Iñaki Gurrutxaga eta Xamoa bertsolariekin.
- **Ondoren** trikiritxa.

Bihar

- **11:00.** Dantzariak.
- **12:30.** Txakolin dastatzea eta sardina jatea.
- **Ondoren** herri bazkaria.
- **17:00.** Umeen pilota eta paleta finalak.
- **Iluntzean** zahagiardoa.
- **Gauean** mus txapelketa jaietamaiera emateko.

L Laburrak

Euskal Jaia antolatzeko bilera, hilaren 21ean

ANOETA • Euskal Jaia antolatzeko hurrengo bilera asteartean, hilak 21, izango da 19:00etan udaletxean. Bestalde, egunean bertan izango den bazkarirako txartelak salgai daude jada Arkupe, Itzuli, Haizea, Buztina eta Laia tabernetan. Tiketek 20 euro balio dute (15 euro langabetu eta ikasleentzat eta 10 euro 8 urte beherako haurrentzat). Tiketak hartzeko azken eguna urriaren 3a izango da. Era berean, egun horretan laguntzeko arduen zerrendak Itzuli tabernan jarri dituzte.

Euskara ikasteko edo hobetzeko aukera

AMEZKETA • Kultura Batzordeak argitu duenez, ikasurte berriarekin batera euskara ikastaroa ere abiaraziko dute. Aurreko ikasurtean maila desberdinetako taldeak sortu ziren eta oraingoan ere beharren arabera antolatu nahi dituzte taldeak eta saiok. Horiek horrela, euskara hobetzeko, ikasteko edo laguntzeko interesa dutenek iraila bukatu baino lehen 688 63 19 52 (Satur) telefono zenbakira deitze-ko esan dute. «Aurten jende gehiago ere animatzea espero dugun», esan dute.

Alurreko dantzariak Berako Dantzari Txiki Egunean, gaur

Ibarra » 30 ume joan dira bertara; goizean dantza talde guztiak bildu eta herriko plazan eskainiko dute emanaldia.

ERREDAKZIOA

Alurr Dantza Taldeak Berako gauroko 16. Dantzari Txiki Egunean hartuko du parte. 30 ume joango dira Nafarroako herrira. Goizean, dantza talde guztiak bilduko dira herriko plazan eta ondoren herriko kaleetan ariko dira, eta amaieran denek herriko plazan dantzatzeko dute. Hango familien etxetan bazkaldu, eta 18:00etan irtego dira Beratik. Alurr Dantza Taldearentzat tradizioa da Berara joan eta hango Dantzari Txiki Egunean parte hartzea.

Era berean, Alurrek aurten ere dantzarien eskolarekin jarraituko duela nabarmendu nahi izan du. «Gazteek horrela euskal dantza eta bestelakoak egin ahal izango dituzte», argitu dute. Aiert Beobide izango da eskola horretako zuzendaria, eta Aiert Beobide bera eta Eider Epelde izango dira ira-



Ibarren ere urtero egiten dute Dantzari Txiki Eguna. HITZA

kasleak. Asteazken eta ostegunetan izango dira eskolak. 635 75 70 48 telefonora deitu daiteke, astelehenetik ostiralera bitarte, arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara, edozein galdera egin edo zalantza argitzeko.

Ikasurte berria

Halaber, Alurr Dantza Taldearen 2010-2011 ikasurtean urriaren hasiko dela gogoratu nahi dute dantza taldeko kideek. Izena emateko epea urriaren 8an amaituko da eta hurrek gutxienek 4 urte izan behar

dituzte. Aurreko ikasurtean aritu direnek etxean jasoko dute 2010-2011 ikasurtean izena eman ahal izateko agiria.

Alurr Dantza Taldearen bulegoa (Arantzazu 4, behe, Ibarra-Gipuzkoa) zabalik egongo da urriaren 8ra bitarte, astelehenetik ostegunera arte, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara, matrikula egiteko agiria jaso edo aurkezteko, eta edozein gestio egin edota zalantza argitzeko. Ibarako Kultur Etxean ere jaso eta aurkezten ahal da matrikula egiteko agiria.

G Gutunak

Bedaioako jaiak, bikain

Artubi Elkarteak kideek adierazirik bikainak izan dira aurten ere Bedaioan izandako jaiak, asteazkenean hasi ziren jaiak Abaetxe taberna-jatetxearen irekiera eta jubilatutako eguna ospatuaz. Egun berezia izan zuten gure jubilatuek eta protagonista zuzenak izan ziren bere egunean, emozio handiz estreinatutako baituzen Abaetxe berria. Ostiralean eta larunbateko herri

afaritan 360 pertsona baino gehiagok hartu zuten parte.

Jaietako ekintza guztiak izan dira jendetsuak, meza nagusiak, ume jolasak, afari herriko bikainak eta nola ez hain ospe handia duten erromeriak. Goizeko ordu txikiak arte plazan dantzatzen egoteko aukera izan zuten bertara hurbildutakoak.

Igandean 27 txirindularik hartu zuten parte Bedaioako XXI. Igoeran eta arratsaldean jendetza bil-

du zen herri kiroletan. Beste behin ere Aimar Irigoien harri-jasotzailak ez zuen bere zitan faltarik egin eta gustu handiz inguratu zen bere trebezia eta indarra erakustera. Ondoren bedaiotarrek Bedaioko ingurutxo estimatua dantzatu zuten.

Jaietamaiera emateko 70 pertsona bildu ziren Artubi elkartearen igandeko ardiak afaria egiteko.

Bikaina giroa. Eskerrik asko. **Bedaioako Jai Batzordea.** Bedaio.

U Urteurrenak

Bigarren urteurrena

JUAN MARI GARMENDIA ARTEAGA

2008ko irailaren 18an hil zen, 60 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Hasiera hartan izan genuen bihotzean hainbat dolore ahaztezinak bihurtu dira jakinduri ta balore.

Zure ondoan bizi izateak suertea eta ohore izango zara gure bizitzan buka ezinezko motore.



BALIARRAINEN, 2010eko irailaren 18a

Haren arimaren alde otowitz bat eskaltzen dizuegu eta arren etor zaitzela BIHAR, IGANDEA, eguerdiko HAMABIETAN Baliarraingo ANDRE MARI JASOKUNDEAREN parrokian elizan egingo den bigarren urtebetetzeko mezara. Aldez aurretik mila esker.

I. urteurrena

JUANA ALKORTA GARATE

ANDREA

(Txomin Bastarrikaren alarguna)

2009ko irailaren 21ean hil zen, 95 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Seme-alabak: Juan eta Rosario Tolosa (?), M^h Isabel eta Imanol Imaz, M^h Milagros eta Koldo Berasategi, Jose Kruz eta M^h Korbil Izagire, Nekane eta Kepa Etxantzi, anai-arrebak: Jose Mari (?), eta Benardina Larrañaga, Maria (?), eta Jose Kruz Plazaola (?), Manuela (?), eta Bittor Uregain (?), M^h Dolores eta Jose M^h Bastarrika (?), eta gainerako ahaideak. Urteurrenko meza GAUR LARUNBATA, arratsaldeko ZAZPIETAN, SALBATORE parrokian elizan izango da.

ZUMARRAGA, 2010eko irailaren 18a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Ikastaro berriak doan probatzeko aukera Belabietan

Ibarra » Ohiko jardueraz gain, multifitness eta Bosu-Gap ere izango dira; hauek ezagutzeko, ate irekien jardunaldia izango da.

ERREDAKZIOA

Hemendik aurrera BPXport Kirol Zerbitzuak enpresa arduratuko da Belabietan kiroldegia kudeaketaz. Hala, bertako arduradunak, eskaintza eta asmo berriekin datoz hurrengo lau urteetarako.

Beñat Barreo, Onintza Arregi eta Xabier Muriel dira kirol zerbitzuko arduradunak eta hauek azaldukoaren arabera, «ikasturte berriari begira, jardueren eskaintza zabaltzea erabaki dute». Hori dela eta, jada finkatuta eta egonkortuta dauden ikastaroez gain, beste berri batzuk probatzeko aukera izango dute ibartarrek.

Jarduera berrien artean, Multifitness eta Bosu-Gap nabarmendu zituzten Kiroldegikoek. Egoera fi-

» IKASTARO BERRIAK

Bosu-Gap

■ **Ordutegia.** Astelehen eta asteazkenetan, 15:15ean. Astearte eta ostegunetan 18:30ean.

■ Jardueraren deskribapena.

Bosu azalera ezegonkor bat da eta malgutasuna, indarra, zalutasuna, oreka nahiz giharren tonifikazioa hobetzeko ariketa ugari burutzeko aukera ematen du.

Multifitness

■ **Ordutegia.** Astearte eta ostegunetan, 11:00etan eta 20:30ean. Astearte eta ostegunetan,

19:00etan.

■ **Jardueraren deskribapena.** Jarduera fisiko askoren konbinaketa da. Horretarako musika, mankuerna, step-a, pisudun barrak, eta pisudun tobillea erabiltzen dituzte.

siko orokorra hobetzen laguntzen duten jarduerak dira hauek, eta ongi pasatuz, kirola egiteko aukera paregabea eskaintzen dute.



Bosu-Gap ikastaroan, azalera ezegonkor eta kurioso bat erabiltzen da gauza ezberdinak egiteko. MARTA SAN SEBASTIAN

Gainera, ikastaro hauek zertan datzan ez dakiten herritarrek, dohainik, bi astez probatu ahal izango dituzte. Urriaren 4tik 15era bitartean, irekiak izango dira saioak, eta nahi duen orok ikusi nahiz parte hartu ahal izango du saioetan.

Bestalde, orain arte ere eskaintzen ziren ikastaroei begira, pilates eta cycling, ordutegia zabaltzea erabaki dute. Honenbestez, hemendik aurrera, talde gehiago egongo dira.

Ibarrako kiroldegia 800 bazkide inguru ditu egun. Bertako ikastaroei, kudeatzaileen arabera, kiroldegi handiekin alderatuz,

abantaila asko ditu Belabietan bezalako kiroldegi txiki batek. Izan ere, hauetan, harreman pertsonalizuagoa eta gertuagokoa sortzen da monitorea eta ikasleen artean.

Ikastaroei izena eman nahi dutenek Belabietan kiroldegian eskuratu dezakete. Baita, 943 67 15 44 telefono zenbakira deituta.

Kudeatzaile berriak, eskaintza berria

Kiroldegia kudeaketa lehiaketara ateratzen zenean, BPXport enpresak proposamen bat luzatu zuen, eta hau aukeratu zuen Udalak. Hala, berea izango da kudeaketa-

ren eskuduntza hurrengo lau urteetan.

Kirol zerbitzuetako arduradunen esanetan, «lehiaketarako eskaintza egiterako garaian, ardatz nagusietako bat, ikastaroen eskaintza zabaltzearena izan zen». Honez gain, Euskal Herriko beste bost kiroldegitako kudeaketaz arduratzen dira BPXport enpresakoak: Anoeta, Hernani, Sorraluze, Deba eta Lodosakoa. Horregatik, Ibarrakoan, gainontzeoketan duten filosofia mantenduko dute. Dena den, garbi dute, aurrera begira, eskaintza zabaltzen joan nahi dutela.

Gaur arratsaldean, etxean hasiko du denboraldia Lauburuk

Ibarra » Sestao izango dute aurkari 18:30etik aurrera Belabietan kiroldegian; bi jokalar berri fitxatu dituzte ibartarrek.

ERREDAKZIOA

Gaur ekingo dio denboraldi berriari Lauburuk. Lehendabizikoa aurkaria, beteranoetako bat izango du, Sestao hain zuzen ere. Estreinakoa etxean jokatu dute. Ohi bezala, 18:30ean hasiko dira jokoa.

Ezustekoez betetako aurrendenboraldia izan da oraingoa, joko arauetan aldaketak egin baitituzte, aurrekontu faltagatik zenbait talde desagertu dira, murrizketak egon dira elkarteen aldetik eta entrenatzaile aldetik nahiz fitxaketak egin dira. Ibarriari ere, murrizketa ekonomikoek nabarmen eragin baldin badiote ere, esfortzu handia egin osten, berriro ere hemen dira, Ibarrako futbol zaleei gozatu arazteko.

Abuztuan hasi zuten aurrendenboraldia Ibarrakoek. Gainera, Belabietan kiroldegian iluntzetan itxita zegoenez, Usabalen hasi ziren entrenamenduekin. Hainbat partida ere jokatu dituzte aurreko as-



Talde kide gehienak mantentzen dira denboraldi honetan ere. HITZA

teetan, tartean, Zilarrezko mailan jokatzeko duen Rivera de Navararren kontra eta Lizarrako Area 99ren aurka. Azken norgehiagoka, orain gutxi Nazional A mailara igo den Lezoko Allerruena aurka jokatu zuten. Hau da ibartarrekin batera, maila horretan jokatzeko duen talde gipuzkoar bakarra.

Lauburu, zenbait aldaketekin dator denboraldi honetan. Bajei dagokionean, bakarra aipatu daiteke, Igor Zabalo donostiarrarena. Iñigo Arrospeidek ere ezingo du

hartu parte partida guztietan. Teknikoek dagokionean, hemendik aurrera ere Txubel izango da entrenatzaile. Bestalde, bi jokalar berri izango ditu Lauburuk. Alde batetik, Tolosako Laskorain taldean bi urtez egon den Lander Camio, eta Ordizian jokatzeko zuten Jon Blanco.

Lauburukoek beste behin ere ibartarrek eta futbol zale guztiak gonbidatzen dituzte Belabietara. Lauburu denboraldi berri honetan animatzen da.

Gutunak

Lizartzako jaien balorazioa

Zuengana zuzentzen gara orain gutxi ospatu diren herriko festen balorazioa egiteko asmoz. Festa baketsuak eta alaiak igaro ditugu, azkeneko urtetan bezala herritarren eta Euskal Herriko jendearen elkartasunarekin egin dira. Gutxi batzuk izan gara bileretan baina herriko jendeak lan egin du antolatutako egitaraua aurrera ateratu da. Gure esker beroenak: Itzala kafetegia, Goizargi okindegia, Eceiza, Arantxa Arrospeide ilea-paindegia, Zuhazki, Balmaseda edariak, Ayestaran edariak, Arrospeide egur garraioa, Goikoetxea janari denda, Ostatu taberna, Lizar janari

denda, Urkizar eraikuntzak, Gokogar eraikuntzak, zesta-punta jokalarriak, Amezetako Ezker Abertzalea, Gabiriko gazteak, Kantuki musika taldea, Lizartzako zezengorri gaztetxea, Ez musika taldea, Oñatiar eta Ondarrutar jendeari, Txirrita elkarteak, herriko dantzari, musikari, eskola eta abar luze bati.

Espero dugu udaletxe gabeko azken urtea izatea baina argi gertatu da, antolatuz gero, ezerezetik festa mundialak egin daitezkeela eta honek aurrerantzean lanean jarraitzeko indarra ematen digu. Haize berriak datozen honetan, hurrengo urterako preso eta iheslari gabeko festa on batzuk egitea espero dugu. Gora Lizartzako Festak!

Lizartzako Ezker Abertzalea.

400 AUKERA HANDIA ETA GUZTIA
Kalitatezkoa

EDARIAK, ELIKAGAIAK, JANTZIAK, ESKULANCINTZA, DISKOAK, LIBURUAK, DVDak...

SARTU ETA EROSI GUREAN www.euskalherrikoPlaza.com



17°
9°

GOIZA EGUZKIA
ARRATS. EGUZKIA
BEROENA 20°
HOTZENA 13°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Azoka

■ **Ibarra.** Extremadurako La Jara elkartearen eskutik, Extremadurako azoka Emeterio Arrese parkean 09:00etatik 14:00etara. 12:30ean Donostiako Coros y Danzas Virgen de Guadalupe taldearen Extremadurako dantza eta kantuen emanaldia, Emeterio Arresen.
■ **Tolosa.** XI. Garagardo Festa Zerkausian, kirol taldeek eta udalak antolatuta. Ginkana eta bizikleta konponketa tailerra, Festaren barruan, Trianguloan 18:00etan.
■ **Villabona.** Bigarren Eskuko Azoka, Berdura Plazan. Mugikortasunarekin lotutako materiala salgai, 10:00etan hasi eta 13:30era.

Kirola

■ **Villabona.** Billabonara! futbol txapelketa, Errebote plazan (euariarekin, Olaederran), 12:00etatik 21:00etara. Izen-ematea: Errebote plazan 11:00etan, 943 69 34 33 zenbakira deituta, edo billabonara@gmail.com helbidera idatziz.

Ospakizunak

■ **Ibarra.** Bizi-Nahi elkartearen jaiak: 11:30ean toka txapelketa, Ibarra tomate eta piperren dastaketa; 16:30etik aurrera bingoa.
■ **Ibarra.** Izaskun izena dutenen festa bihar Izaskunen: meza eta bazkaria Izaskun jatetxean.

Zinema

■ **Tolosa.** Leidor aretoan: 19:30ean, *El aprendiz de brujo*, eta 22:30ean, *Yo soy el amor*.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



ITALIA ●

Argazki hau bidali digu Mila Garcia de Iturrospek: «A ze indarra egin behar izan zuen Maddik Pisako dorrea pixka bat gehiago okertzeko! [kar, kar, kar] Oso ondo pasa genuen eroarena egiten!». MILA GARCIA DE ITURROSE

ITALIA ●

Maddi Montillak bidalitako argazkia da hau: «A zer neke! Eta guztia Erromako ikuspegi polit bat izateagatik... Argazkia, Vaticanoko kupulatik aterata dago, eta berriro errepikatzen dut, a zer neke. 551 eskaiera igo behar izan genituen (eta gero jaitsi) hori ikusteko!». MADDI MONTILLA



ITALIA ●

Argazki hau bidali digu Izarne Iglesias: «Udara honetan Italian izan gara oporretan, eta lekuetako bat Erroma izan da. Nola ez. Ezin utzi genezake Fontana di Trevi ikusi gabe eta bertan, desiorik eskatu gabe! Ea itzultzeko aukera dugun!». IZARNE IGLESIAS

A Agurrak



Zorionak!

Eider Urkizar Landa. Gaur urtebete. Zorionak eta muxu pottoloak etxekoan partetik.

argazki lehiaketa

XII. HITZA Argazki Lehiaketa Animatu eta parte hartu!

NORA BIDALI?

argazkiak@tolosaldeko-hitza.info helbide elektronikora
Irailak 30 arte

HITZA udarako argazki lehiaketa

1. Saria

2. Saria

3. Saria

Parte-hartzaileak HITZAko

txean bi...
u pasatze...

landet...
ga...

giak
ia

ailen a...
tatuko d...